

## **Ama gaxo dago. Ugalde'tar Martin'en antzerkia**

Andoni

*Tierra Vasca*, 99. zk., 1964-09: 7.

Zorionez gaude, ba azpaldi ontan, ainbat euskal antzerki agertu dira, ta onek esan nai du, euskera kultur gaitan, biskor dagola.

Egunotan, eskerrak bere egille Ugalde'tar Martin jaunari, berak egindako lan polita artu dugu ta oso pozik eta arretaz irakurri ere.

Lan au, Iruxo'tar Pello Mari'ri eskiñia izanik, berak eman digu irakurtzeko, eta zerbait gure aldetik iartzeko aldizkari onetan.

Irakurri len diogun lez, eta oso atsegín ere bai. Edozein euskoantzeztalde batek, onura aterako leioke, ba erreza da, ta erri oiturak, edozein eusko-erriko oiturak, poliki agertzen ditu.

Erritik kanpora alde egiten duten gizon eta emakumen kezka da. Pizka bat, gero pizkortuzen bada ere, kanpoan egoteak, sendiaganako maitasuna epeldu egiten du. Beste ikusmen batzuek, beste oiturak, atzerrian egon, norbere odoleko eta sendiko diranakin artu emanik ez izan, eta gauza guzti orrek, otsa biotzera ekartzen dute. Baña eskerrak odola ura eztana, eta berriro norbere tokira biurtzeak, epeltasun orreik itzali, eta berriro egiazko maitasuna pizkortzen dala.

Ori da antzerki orren Miguel'eri gertatzen zaiona.

Zorionak idazleari, ba lan orrekin pitxi arri bat erantzi dio gure euskerari, eta ezta gutxi, batez ere gaurko egunotan.